

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zerbitzu edo enpresa bati bizia ematen diotenak bezeroak izan dira betidanik, eta guk argi daukagu gure zerbitzuaren ardatza ere gure bezeroak direla. Atal honen bidez gure bezero potentziala zein den eta nolakoa den aztertuko dugu gure egitasmoa aurrera eraman ahal izateko eta gure bezeroak hobeto ulertzeko.

Gure zerbitzuaren segmentazio mota definitu beharko bagenu, merkatu nitxoa izango litzateke; izan ere, gure bezeroak oso zehaztuak eta bereiziak izango dira. Gure bezeroek ohiko partikular baten bidez ezin dituzte beraien beharrak guztiz aseta, izan ere, partikular hauek ez daude beraien beharretara egokituta eta gure ikasleek beste ikasleek ez bezala metodologia eta erritmo moldatu eta egokituak behar dituzte. Ondorioz gure zerbitzua merkatu masibo batetik asko urruntzen da zerbitzu eta arreta guztiz pertsonalizatua ematen diegulako gure bezeroei.

Gure bezeroek izan beharko duten ezaugarriarik nagusia diagnostiko jakin bat edukitzea izango da, izan ere, gure zerbitzuaren helburu nagusia diagnostiko horren baitan gure bezeroak laguntzea delako.

Bestalde, gure lokala Urretxu-Zumarragan kokatuko denez, gure bezeroak Urretxu-Zumarragako biztanleak izango dira.



Beste alde batetik gure bezeroek gutxieneko euskara maila izan beharko dute gure klaseak jaso ahal izateko, gure klase guztiak euskaraz emango ditugulako eta hizkuntza jakitea ezinbesteko ezaugarri bat delako guretzat.

Gure bezeroek eduki beharko duten beste ezaugarri bat LH 1. mailatik 2. batxilergora arteko ikasleak izan beharko direla da, izan ere, ikasturte hauetan ematen diren edukiak landuko ditugu gure klaseetan eta eduki horietan soilik espezializatuko gara.

Gure bezeroak ez ditugu beraien “klase sozialaren” arabera sailkatuko. Gure partikularra beste edozein partikular baino apur bat garestiagoa bada ere, eskaintzen dugun tratua pertsonalizatua eta dedikatua delako, ez dugu inor baztertuko, eta diru-sarrera txikiagoak dituzten familiei deskontu bat egin ahal izango diegu Zumarraga eta Urretxuko udaletxeek eskuratuko dizkiguten diru-laguntzei esker.

Laburbilduz, gure merkatuaren segmentazioa nahiko zehatza da: diagnostiko jakin batzuk dituzten, LH 1. mailatik 2. batxilergora bitarteko ikasleak, Urretxu-Zumarragako biztanleak eta klaseak euskaraz emateko intentzioarekin. Horrela, gure zerbitzuak arreta pertsonalizatu eta moldatua eskaintzeko aukera izango du, benetako beharrei erantzunez eta ikasleen ikaskuntza-prozesua ahalik eta gehien bermatuz.

